


Merkatuaren segmentazioa



Zerbitzuaren bezeroa aparkalekua aurkitzeko arazoak dituen gidari oro izango da. Ezin dugu mugatu pertsona talde batera. Aitortu beharra dago hemezortzi urtetik gorakoek erabili ahalko dutela, ibilgailua gidatzeko baimena dutenetik aurrea, eta teknologia-ezagutzak dituztenek, aplikazioa erabiltzen jakin beharko baitute.

Bezeroen ezaugarriak nahiko antzekoak dira: egunero lanera doazenak eta aparkatzeko lekua bilatzen denbora galtzen dutenak, bileretara berandu joaten direnak, umeekin ikastetxera denboraz justu joaten direnak, eta gazteak gehienbat, lehen aipatu bezala, aplikazioa erabiltzeko gaitasuna eta ezagutza nahikoak izango baitituzte.

Aldaketa klimatikoaz kezkatuta egotea ere izan liteke bezeroaren profila, honen aurkako erabaki bat hartu dugulako eta baliteke bezeroa horrekin bat etorri eta hura babestu nahi izatea.

Prezioari dagokionez eta aurrekoarekin lotuta, gure bezeroak bi taldetan sailkatzen ditugu: ibilgailu elektrikoen eta hibridoen erabiltzaileak, eta beste taldean egongo lirateke beste guztiak. Multzo hauetan banatzeak CO2 emisioak murrizteko ahalbidea ematen digu. Elektriko eta hibridoen emisio kantitate txikia, konparaezina baita besteekin. Hori dela eta hartu dugu bi taldetan banatzeko erabakia, eta prezioa ere horren araberakoa izatea.